

Agur,

borroka armatuari amaiera emateko hartu zenuten erabakiaren ondotik jin zen bake prozesua molde batean edo bestean lagundu dugu. Prozesu hori gaur egun, blokeo egoeran dagoela egiaztatu dugu. Gaur egungo egoerak ezingo du, gure ustez, arriskutsua izan gabe luzaroan iraun.

Horregatik, denek adostuko dugun aterabide baterako bideak irekitzeko ideiak atxikiak garenez, urrunago joatea ezinbestekoa dela deritzogu. Bi Estatuak erakusten duten blokeoaren aitzinean, gizarte zibilak inizatiba hartu eta, Baionako eta Pariseko adierazpenetan agertzen den bezala, armagabetzearen, preso eta iheslarien etxeratzearen, biktimen onarpenaren eta «Egia eta Berradiskidetzea» gisako batzorde baten plantan ezartzearen gaiek oldar berri bat bizi dezaten bermatu behar du.

2015eko abenduan, zuen ordezkari den David Plaren ahotik zuen armategiaren inbentarioa egiteko eta berau zigilupean jartzeko borondatea publikoki agertu zenuten.

Armagabetze prozesu hori burura joan dadin eta bake prozesuak bere osotasunean aitzina egin dezan ahalbidetu dezaketen ekimenetan gure parte hartze zehatza proposatuz engaiatzeko prest gaude.

Gure proposamena egokitzen joko bazenute eta armagabetze prozesuan gizarte zibilaren parte hartzearen nondik norakoak definitzeko gisan, zuekin eta gai honen ardura duten nazioarteko antolakundeekin harremanetan egoteko prest gaude.

Zuen erantzunaren zain,

Michel Tubiana
Giza Eskubideen Ligako
ohorezko lehenkaria

Mixel Berhocoirigoin

Jean Noël Etcheverry (Txetx)

Bonjour,

nous avons accompagné, à un titre ou à un autre, le processus de paix qui a suivi votre décision de mettre fin définitivement à la lutte armée. Nous constatons que ce processus est aujourd'hui enlisé. Nous pensons que la situation actuelle ne peut perdurer sans risque.

C'est pourquoi, parce que nous restons attachés à ce que s'ouvrent les voies d'une solution partagée par tous, nous croyons qu'il est indispensable d'aller plus loin. Face au blocage actuel des deux États, nous pensons que la société civile doit prendre l'initiative et garantir, comme cela est stipulé dans les déclarations de Bayonne et Paris, que les questions du désarmement, du retour des prisonniers et exilés, de la reconnaissance des victimes et de la mise en place d'une commission de type «Vérité et Réconciliation» connaissent un nouvel élan.

En décembre 2015, vous avez publiquement communiqué par la voix de votre représentant David Pla votre volonté d'inventorier et de mettre sous scellé votre arsenal.

Nous sommes disposés à nous engager en vous proposant notre participation concrète à des initiatives pouvant permettre l'aboutissement de ce processus de désarmement, et l'avancée du processus de paix dans sa globalité.

Dans le cas où vous jugeriez notre proposition opportune, nous sommes disposés à échanger avec vous, ainsi que les organismes internationaux en charge de ce dossier, afin de définir les modalités de la participation de la société civile dans le processus de désarmement.

Restant dans l'attente de votre réponse,

Michel Tubiana
Président d'Honneur de la
Ligues des Droits de l'Homme

Mixel Berhocoirigoin

Jean Noël Etcheverry (Txetx)



Euskal Herrian, 2016ko urriaren 19ean

Jaun agurgarriak

Lehenik eta behin jaso gure errekonozimendua. Bakearen bidean aurrera egiteko orain arte erakutsitako konpromisoa nabarmentzekoa izan da, eta orain txalogarria deritzogu disposizio hori areagotzeko azaltzen ari zareten borondatea.

Zinez eskertzen dugu borondate hori. Izan ere, konponbidearen agendan aurrera egiteko zailtasun izugarriak ditugu. Begien bistakoa izan da agenda horri ekiteko estatuen boronda te eza. Are gehiago, aurrea egiteko urrats txikiena ere oztopatu dute. Aipatzen duzuen armagabetzearen auziari buruz, oso agerikoak izan dira ETAK arma eta lehergailuen inbentarioa egin eta armategiak zigilatzeke hasitako prozedurak jasandako mota guztietako erasoak.

ETAren aburuz, konponbideak integrala behar du izan. Gai guztiek izan behar dute aterabidea, bakea behin betiko errotu dadin. Armategien auzia eta presoan auzia ditugu bi adibide nagusienetakoak. Halere, jakin ere badakigu alor bakoitzean, ahal den neurrian, aurrera egin beharra dagoela, azkenean denetan urratsak egiteko baldintzak sortu ahal izateko.

Horrenbestez, izandako arazoak ikusita eta armagabetzerako bidean laguntzeko zuen eskaintzak duen balio handiaz jabetuta, jakinarazi nahi dizuegu ETA prest dela bide hori egiteko, hau da, armen deuseztatzea edo erabileraz kanpo uztea eta armategiak desegitea gizarte zibilaren eta nazioarteko eragileen bidez egiteko, gobernuen parte-hartzea, prozesuak segurtasun handiagoa izan dezan, baztertzerik ezin bada ere. Nolanahi ere, gaur gaurkoz, hauxe da ETAren abiapuntua: Euskal Herriko gizarte zibilaren esku utziko lituzkeela bere armak, nazioarteko eragileen parte-hartzearekin, desegin daitezken. Euskal erakundeen inplikazioa eta babesak ere bilatu beharko litzateke. Jakina, horrelako lan bat hartzeko nahikoa baliabideak lortu ahal daitezkeen aztertu beharko duzue, prozesu hau modurik eraginkorrenean egin ahal izateko. Ez da gauza erraza izango.

Baliabide horiek lortzerik bada eta bide horretan barrena egiteko prest bazinete, hori dena egin ahal izateko metodoa zehaztu beharko genuke.

Aurrerantzean ere elkarren berri izango dugulako, jaso gure agurra.

Adeitasunez

Euskadi Ta Askatasunaren Zuzendaritzaren Batzordea



Agur,

Zuen erantzuna jaso dugu.

Erabili hitzak prezatzen ditugu, eta eman konfiantza eskertzen dizuegu.

Proposatzen dizuegu zuen armategiaren suntsiketa prozesua gizarte zibilaren ardura politikoaren esku uztea Nazioarteko Egiaztatze Batzordearen zainzapean. Ekimen hau bake prozesuaren indartzeko perspektiba orokorragoaren barne eramana da; osoa izateko beste arazo batzuk konpondu behar dituen prozesua (presoak eta abar). Eginahalak oro egiteko prest gaude ardura horren gizarte zibilaren esku ezartzeko ahal bezain laster eta osoki.

Indar eginen dugu gizarte zibileko ordezkari ezberdinekin, Euskal Herriko erakunde ezberdinekin eta nazioarteko eragileekin harreman baliagarrien sustatzeko. Prozesua ordenaturik eta segurtasunez egin dadin estatuek parte hartzeko aukerak zein izan daitezkeen aztertzeko engaiamendua hartzen dugu.

Laster halako dinamika baten bultzatzeko ekimen konkretuak bideratuko ditugu, eta egingarriak izan daitezen zuekiko komunikazio bide egoki baten plantan ematea eskatzen dugu.

Segur izan zaitezte gure borondate onaz.

Michel Tubiana
(Txetx)
Giza Eskubideen Ligako
ohorezko lehendakaria

Mixel Berhocoirigoin

Jean Noël Etcheverry



Euskal Herrian, 2016ko azaroaren 15ean

Jaun agurgarriak

Lehenik eta behin jaso gure agurra. Eskertzekoa da bidali duzuen bigarren gutunean agertzen duzuen prestutasuna bake bidean aurrera egiteko. Esan behar dugu beste eragile batzuek horren erdia agertu izan balute askoz ere egoera hobegoan geundekeela gaur egun. Zuen jokabidearekin bakeak parez pare dituen oztopoak gainditu ahal izango dituela uste dugu.

ETAK zuek azaldutako izpituarekin bat datorrela adierazi nahi du, eta zentzu horretan ondoko erabakien berri eman nahi dizue:

- Arma eta lehergailuen inbentarioa eta zigilatzea egiteko lanak amaituta izanik (bai bederen teknikoki ahal izan dugun guztia), armagabetze fasea zabaltzea.
- Fase horri ekin ahal izateko nazioarteko eragileen laguntza eskatzea. Zentzu horretan Nazioarteko Egiatzatze Batzordeari bere misioa aldatzea, zabaltzea eskatuko zaio, armagabetzean inplikatzeko eta prozesu horretan lekukotasuna emateko. ETAK armagabetze osoa nahi du, zalantza izpirik utzi gabe.
- Gizarte zibilaren esku uztea armagabetzearen ardura politikoa eta teknikoa. Horregatik prozesu hori nola egingo den zuen ardura izango da. Soilik gauza bat eskatu nahi dugu: egiten den bideak ez dezala zirrikiturik utzi inork irakurketa okerrik egiteko, "garaituen eta garaileen" kontakizun maltzurra egiteko. ETAK gizarte zibilaren esku uzten du bere armak deuseztatzeko prozesuaren ardura. Gure helburua ETA erakunde ez armatutzat ahal bezain laster deklaratzeko da.

Bide hau egiteko gizarte zibilarekin harreman bide iraunkorra zabalduko dugu.

Zuen berrien zain, jaso berriro ere gure agurra.

Adeitasunez

Euskadi Ta Askatasunaren Zuzendaritzaren Batzordea



Gizarte zibilak bere ardurak hartu ditu eta ETArekin armategiaren desegitea hasi du

Ekimen honen geldiarazteko operazio poliziala bidean da!

Guk, gizarte zibileko kideok, ETArekin harremanik ez eta ere menpekotasunik izan gabe, erakunde armatuaren desarmatzearen abiatzea erabaki dugu, eta lehen arma erreserba baten suntsitzea (1).

Gizarte zibilari eta hautetsi guztiei dei egiten diegu berehala elkarretaratu daitezzen saldoan, modu erabat baketsuan, baitezpadako desarmatze ordenatu eta kontrolatu baten sostengatzeko.

Bakoitzak bere ardurak hartu behar ditu bake prozesua bururaino joan dadin. Bake zuzen eta iraunkorraren erantzukizuna bakoitzaren esku da.

- Euskal Herriarentzat bortizkeriarik gabeko etorkizun demokratiko baten alde lan egin nahi baitugu.
- Konbentzituak baikaude armagabetze hori gatazkaren behin betiko konponbidera iristeko ezinbesteko baldintza dela, honekin batera bortizkeriara itzultzea ezinezko bihurtuz, biktima guztiak kontutan hartuz honek eskatzen dituen erreparazioekin “egia eta berriz adiskidetzearen” gisako urrats batean, eta euskal gatazkari lotu preso guztien askatzearekin.
- Urrats ezberdin hauek, prozesu orokor bateko ezin baztertuzko ezaugarriak izanez ez baitaitezke egin estatuen parte hartzearekin baizik, armagabetze unetik beretik.
- Zentzugabeko egoera horretatik atera behar baita: erakunde armatuak armak itzuli nahi baina estatuak halakorik gauza dadin ez nahi.
- Aieteko Konferentzia egin zenetik eta borroka armatuaren gelditzetik 5 urtera, prozesuaren galarazte batek pentsatu nahi ez ditugun ondorioak ekar baititzake, ETari eskatu diogu bere armategi osoaren suntsiketa gizarte zibilaren ardura politikoaren esku uztea, eta erabaki dugu suntsiketa horren hastea.

(1) Lehen arma multzoa ETAk zigilupean jarri armategiaren %15 da guti gora behera

Michel Tubiana
(Txetx)

Giza Eskubideen Ligako
ohorezko lehendakaria

Mixel Berhocoirigoin

Jean Noël Etcheverry